



MUSEOKO MISTERIOA

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara

Museoko Misterioa orientazio-jolas bat da, QR kodeduna. Inprima itzazu QR kodeak orri banatan, eta jar itzazu barruan edo kanpoan, ikasleek kodea erraz eskaneatzeko moduan. Lanak zenbaki-ordenan egin behar dira. Ikasle edo talde bat baino gehiago aldi berean jolasten ari badira, kode-multzo bat baino gehiago inprima dezakezu, ikasle edo talde horiek lan bera aldi berean egin ahal izan dezaten.

Museoko Misterioaren jolasa azken azterketa gisa edo egile-eskubideei buruzko eskola bat hasteko erabil dezakezu. Jolasak 30-45 minutu irauten du. Lanak amaitu ondoren, egokia da ikasleekin galdera-erantzunei buruz eztabaidatzea.

Hasteko, hasierako istorioa irakurtzea komeni da, elkarrekin edo nork bere kasa. Gero, ikasleek QR kodeen atzean dauden egile-eskubideei buruzko galderei erantzungo diete. Galdetegiak gailu mugikor batekin eta inprimatutako QR kodeekin ireki daitezke. QR kodeak irakurtzeko, ikasleek Interneteko konexioa eta QR kodeak irakurtzeko aplikazioa dituen telefono mugikor edo tableta bat behar dute. QR kodeak irakurtzeko aplikazioa aplikazioen dendatik jaitsi daiteke gailuetara. Aplikazioak doakoak izan ohi dira. QR kodeak irakurtzeko, jarri gailuaren kamera QR kodeari begira. Kodeak gailuaren pantailan irekiko du dagokion lana.

Lan bakoitzean, ikasleek kode alfabetiko bat jasoko dute galdera bati ongi erantzuten dioten bakoitzean. Kode alfabetikoak erantzunen formulario batean idatzi behar dira zenbaki-ordenan (lehen lanaren kodea, lehen laukian; bigarren lanaren kodea, bigarren laukian...). 10 lanak egin eta gero, ikasleek soluzioaren kodea misterioaren laukian idatziko dute, misterioa argitzeko. Istorioak hiru soluzio desberdin ditu, ikasleek zein erantzun eman dituzten. Soluzioaren kodea sar daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara arteko eskoletan Egile Eskubideen Ikasgelan dagoen misterioaren laukian klikatuz edo, bestela, QR 11 kodearen bitartez, zuzenean.

Museoko Misterioaren jolasean aritzeko, ezinbestekoa da QR irakurgailua duen telefono edo tableta bat edukitzea.

Zorte on abentura zirrargarri honetan!



MUSEOKO MISTERIOA

(Tuutikki Tolonen-ek idatzia)



Egile Eskubideen Ikasgelako Museoan film zaharren erakusketa bat inauguratu dute. Ana eta Josuren gelakoak museoan ikuskizun bat ikustera gonbidatu dituzte. Museora heldu direnean, ordea, poliziaren auto bat ikusi dute atean. Zer gertatu ote da?

Gelakideak dudatsu sartu dira museoan. Atondoan, museoko gidari bat polizia-agente bati azalpenak ematen ari da, urduri:

—Film zaharren zinta guztiak lapurtu dituzte!

Lapurren batek atzeko atearen ondoan zegoen kutxatik hartu ditu, nik entzunaretora aulkiak eramaten nituen bitartean.

—Egin diezaiozun begiratu bat kutxa horri

—proposatu du poliziak.

Gidaria eta polizia atzeko atera bidean desagertu dira.

—Zer egingo dugu orain?

—galdetu dio Irisek irakasleari.

—Eskolara itzuli beharko al genuke?

—gaineratu du Mariok.

Irakaslea pentsakor dago.

—Pixka batean itzarongo dugu. Beharbada zintak aurkituko dituzte.

Eraman berokiak arropategira eta itzuli hona.





Ana joan da arropategira, eta hura ustekabea!
Loro bat dago esekitokian eserita!

—Hara, begira!
Denbora asko ote darama hor eserita? —esan dio Anak Josuri.

Josuk loroari begiratu, eta erantzun dio:
—Lepoa egingo nuke lapurretaren lekuko bakarra dela.
Zoritxarrez, ezin digu ezer kontatu.

Loroak hurrei begiratu die, begi beltz distiratsuekin.
—Agian bai —xuxurlatu du bat-batean, ahots zakarrarekin.
—Zer? —oihu egin dute Anak eta Josuk—.
Hitz egiten al duzu?

—Zer iruditzen? —erantzun die loroak.

—Bale, nork eraman ditu zintak? —galdetu dio Josuk.
—Informazioa informazioaren truke, erantzun bat beste
erantzun baten truke —esan du loroak, karranka.
—Zer esan nahi du horrek? —galdetu dio Anak.


Loroak Anari adi-adi begiratu, eta erantzun dio:
—Egile-eskubideen loroa naiz.
Zuek galdetu eta nik erantzun egingo dizuet.
Erantzuna zuzena bada, letra bat jasoko duzue.
Letrek esango dizuate zintak nork lapurtu dituen.

Ia ikaskide guztiak loroaren inguruan pilotuta daude.
Hurrek elkarri begiratu diote.
—Ados. Emaguzu lehen lana! —esan du Josuk.




1

MUSEOKO MISTERIOA




2

MUSEOKO MISTERIOA




3

MUSEOKO MISTERIOA




4

MUSEOKO MISTERIOA




5

MUSEOKO MISTERIOA




6

MUSEOKO MISTERIOA




7

MUSEOKO MISTERIOA




8

MUSEOKO MISTERIOA




9

MUSEOKO MISTERIOA




10

MUSEOKO MISTERIOA



11

MUSEOKO MISTERIOA



1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

